

Zamudio, Zierbena eta Olaberria dira Euskal AEn per capita BPG handiena duten udalerriak

Arabako hiru eskualdek, berriz, biztanleko BPG balio handienak dituzte: Errioxa, Arabako ibarrak eta Gorbeia inguruak

Euskal AEn, Eustaten datuen arabera, Zamudioko udalerriak, zeina Bizkaikoa baita, du biztanleko BPG handiena. Bigarren Zierbena (Bizkaia) eta hirugarren Olaberria (Gipuzkoa). Laugarren Loiu, bosgarren Ajangiz, Bizkaikoak; seigarren Legutio, Arabakoa.

Arabak du per capita BPG handiena, 107ko indizea, Euskal AEko batez bestekoa 100 delarik; Gipuzkoak 101, batez bestekoa ia, eta Bizkaia 97.

Hiriburuetan Donostia (108) aurrena 2010ean; Gasteiz 102 eta Bilbo 97.

Udalerri bakoitzean BPGren sektore-banaketa begiratz gero, Zamudion zerbitzuak (%50,7) eta industria (%45,7) dira nagusi, biak Teknologia Parkeko enpresa-jarduerarekin lotuak. Per capita BPG handienak dituzten hiru udalerrietako ezaugarria da lehen sektorearen pisu ezdeusa. Zierbenan (%80,4) eta Olaberrian (%72,4) industriak pisu handia da. Bi udalerrietan zerbitzuek pisu txikia dute, %18,0 eta %26,5.

Bilbon eta Donostian BPGren %85 pasa zerbitzuek sortua da; Gasteizen, aldiz, %65 inguru. Gasteizen industriak pisu handia (%24,1) du besteen aldean: Bilbon (%5,4), Donostian (%5,7).

1. taula. Biztanleko BPG altuena (eurotan) izan duten Euskal AEko udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2010

BIZTANLEKO BPG			SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	INDIZEA ¹	NEKAZARITZA, ABELTZAIN-TZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Euskal AE	29.988	100	0,7	23,7	8,8	66,7
Araba/Álava	32.054	107	1,3	30,5	8,1	60,2
Bizkaia	29.187	97	0,6	19,1	9,1	71,2
Gipuzkoa	30.368	101	0,6	27,6	8,8	63,0
1 Zamudio	275.502	919	0,1	45,7	3,5	50,7
2 Zierbena	175.310	585	0,4	80,4	1,3	18,0
3 Olaberria	169.000	564	0,3	72,4	0,8	26,5
4 Loiu	167.514	559	0,2	19,7	5,4	74,7
5 Ajangiz	153.246	511	1,0	86,3	1,1	11,6
6 Legutio	131.567	439	1,0	69,8	2,7	26,5
7 Aduna	130.814	436	0,4	51,3	5,4	42,9
8 Izurtza	119.409	398	0,3	77,0	1,7	20,9
9 Berantevilla	106.916	357	4,8	78,5	3,2	13,6
10 Laguardia	101.147	337	5,8	55,0	2,2	37,0

¹Kokalekua, Euskal AEko balioarekin alderatuta (=100)


Eskualdeka, Araban daude per capita BPG handienak dituzten lehenengo hirurak. Aurrena Errioxa (172) dugu, bai ardogintzaren sendotasunagatik, bai biztanle-dentsitate txikiagatik. Bertan Laguardia (337), Villabuena de Álava/Eskuernaga (200) eta Eltziego (188) nabarmentzen dira.

Arabako Ibarak (160) dugu bigarren eta Gorbeia Inguruak (146) hirugarren. Laugarren Debagoiena (Gipuzkoa, 127) dugu, eta bosgarren berriz ere Arabako bat, Mendialdea (123).

Eskualde hauetan, Arabako Mendialdean izan ezik, industriak pisu handia du balio erantsian, %50 batez beste, Euskal AEn %23,7 delarik. Kontrajarrita zerbitzuen sektorearen pisu txikiagoa dugu (%40 inguru), Euskal AEn %66,7 delarik.

2008-2010 aldian, Euskal AEko 251 udalerrietako 177tan (%71) per capita BPGk bilakaera negatiboa izan du. 148tan (%59) bilakaera negatibo hori Euskal AEko batez bestekoa (%-2,1, urteko batez besteko aldakuntza metatua) baino okerragoa izan zen. Lanestosak (%46,4), Orozkok (%31,0) eta Sukarrietak (%21,2) dituzte hazkunderik handienak. 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, Durango (%8,8), Leioa (%5,9), Santurtzi (%3,9) eta Erandio (%3,6) nabarmentzen dira positiboan eta Errearteria (%-6,0), Barakaldo (%-5,2) eta Sestao (%-3,5) negatiboan. Hiriburuen artean, Gasteizek du bilakaerarik negatiboena (%-4,1ko urteko batez besteko metatua) per capita BPGn; Bilbon %-0,5 eta Donostian, berriz, %+0,3, eta honek jarri zuen hiruen arteko lehena 2010ean, Gasteiz ordeztuz.

1. grafikoa. Per capita BPGren banaketa eskualdeka 2010. euroak.



Iturria: Eustat. Udal BPG

Ohar metodologikoa:

Udal BPGren edizio berri honetan funtsezko bi aldaketa daude aurrez argitaratutako datuen aldean.

Lehena, bi urteetako zenbatespenarentzat erabilitako sektore-sailkapena 2009-JESN-n oinarritzen da (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalan)

Bigarren, bai 2008ko, bai 2010eko datuetarako, erreferentziako oinarri urtea 2010 da; erabilitako okupazio-aldaia, "Lanpostuak", erabateko alderagarritasuna ahalbidetzen delarik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko udal BPGri buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko udal BPGri buruzko datu-bankua